



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA SOZIETATEAREN SEGURTASUN ANALISTA LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK**

**(deialdiaren kodea: 2022005)**

### **LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:**

Antolakuntza eta Zerbitzuen Atalean sartuko da, proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, ataleko arduradunaren mende.

Lanbide jardueran AKSAn ondoko eginkizunak bete beharko ditu:

- Lankidetzaren arriskuen analisia egiteko.
- Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemak (ISKS) auditoria eta jarraipena.
- Sistema eragileen, datu baseen eta komunikazio sareen segurtasun ezaugarrien analisia eta aholkularitza egungo azpiegituran.
- Informatika segurtasunaren printzipioei buruzko analisia.
- Informazio sistemak ezartzeko segurtasun eskakizunen analisia eta definizioa.
- Merkatuko segurtasun tresnen administrazioa eta aholkularitza irismen funtzional mugatuetan.
- Segurtasun fisikoko sistemak administratzea.
- Informazioaren segurtasunaren arloan aplikatzekoa den legezko araudiaren analisia eta auditoria.
- Jarraitutasun eta kontingentzia planak mantentzea.

### **BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:**

Izangaiek posta elektronikoko bidez bidali beharko dituzte oinarri orokorretako 3.1) atalean eskatzen diren agiriak, honako helbide honetara: [2022005@qualisconsultores.es](mailto:2022005@qualisconsultores.es)

Eskabideak aurkezteko epea **2022ko uztailaren 4an amaituko da.**



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

### **HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:**

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako goi mailako ingeniari-tza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea.
- Beste ingeniari-tza batzuk, lizentziatura Fisiketan edo Matematiketan edo gradu baliokideak.

### **LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:**

Deialdi bakarreko sistemaren arabera ariketak edo probak eginez gero, edo hautagaiak bertaratzea eskatzen duten beste ekintza batzuk izanez gero, haurdunaldia, erditzea edo edoskitzea, behar bezala egiaztatuta, arrazoi izan daitezke ekitaldia egiteko denboraren eta/edo lekuaren inguruabarrak aldatzea justifikatzeko.

Aldaketa-eskaerei erantzuteak berekin ekarriko ditu hautagai guztien lehia-berdintasunaren printzipioa bermatzeko beharrezkoak eta egokiak diren antolaketa-neurriak.

#### **1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:**

**Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa** izango da (**GAI – EZ GAI**).

- Ezaupideak:
  - Informazioaren segurtasunarekin lotutako legeria administrazio publikoetan.
  - Informazioaren segurtasunarekin lotutako nazioarteko estandarrak
  - Enpresa produktu ohikoenetan (sistema eragileak, datu baseak, web zerbitzariak, etab.) segurtasun kontraneurriak ezartzea.
  - Egiaztapen eta sinadura elektronikoko zerbitzuak ematea.
  - Informazioaren segurtasuneko tresnei buruzko oinarritzko ezagupenak
  - Arriskuen analisia, BIA, kontingentzia planak, negozio planak.

Zinpeko adierazpen bidez egiaztatzea goian adierazitako jakintza espezifikoak dituela.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

## **2. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA (geh. 30 puntu):**

### **A) Titulazioak (geh. 10 puntu):**

- Telekomunikazioetako goi mailako ingeniaritza edo Informatikako goi mailako ingeniaritza edo Informatikako lizentziatura edo gradu baliokidea: 8,5 puntu.
- Beste ingeniaritza batzuk, lizentziatura Fisiketan edo Matematiketan edo gradu baliokideak: 4 puntu
- Lanpostuaren eginkizunekin (zibersegurtasuna, DBO...) zerikusia duen masterra edo CISA ziurtagiria: 1,5 puntu

### **B) Hizkuntzak (geh. 4 puntu):**

#### **B.1) Hizkuntza: Euskara (geh. 2 puntu):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: **puntu 1.**
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.

#### **B.2) Hizkuntza: Ingelesa (geh. 2 puntu):**

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
  - B1: **0,5 puntu.**
  - B2: **puntu 1.**
  - C1: **1,5 puntu.**
  - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila gorenekoa bakarrik balioetsiko da.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

### C) Esperientzia (geh. 16 puntu):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratua.

2 urtetik gorako esperientzia izatea lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Oso ondo betetzen du: <b>16 puntu.</b></li><li>- Nahiko ondo betetzen du: <b>12 puntu.</b></li><li>- Ondo betetzen du: <b>8 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu.</b></li></ul>
Urtebete baino gehiagoko esperientzia lanpostuetan, baldin eta azken 4 urteetan lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunak bete baditu, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	<ul style="list-style-type: none"><li>- Oso ondo betetzen du: <b>16 puntu.</b></li><li>- Nahiko ondo betetzen du: <b>12 puntu.</b></li><li>- Ondo betetzen du: <b>8 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: <b>4 puntu.</b></li><li>- Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka: <b>0 puntu.</b></li></ul>

Balorazioa egiteko:

Honako hauek hartuko dira kontuan:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso ondo betetzen du	% 100
Nahiko ondo betetzen du	% 66 > eta % 100 <
Ondo betetzen du	% 33 > eta % 66 <=
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	% 0 > eta % 33 <=
Ez du ondo betetzen eta hobetu beharreko nahiko alor dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Merezimenduen baremoetan, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, balioetsiko dira hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzian egon diren denbora, amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, bai eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora ere.

### **3. FASEA: LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEAREN INGURUKO ARIKETA PSIKOMETRIKOA**

Ez da aplikatzen (ez dago).

### **4. FASEA: GAITASUN ELKARRIZKETA ETA ELKARRIZKETA TEKNIKOA (geh. 20 puntu)**

- **Nahitaezkoa** da.
- 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten 4 pertsoneri egingo zaie elkarrizketa pertsonala.
- Aipatutako elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak.
- Elkarrizketak bi zati ditu:
  - **Gaitasunena:** Elkarrizketa horretan honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (geh. 10 puntu)
    - Taldean lan egiteko gaitasuna
    - Presiopean lan egiteko gaitasuna
    - Komunikazio gaitasuna
    - Autonomia eta iniziatiba
    - Inplikazioa lanarekin

Fase honetako puntuazioa izango da eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura:

- Gaitasunik ez: 0 puntu
- Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 0,5 puntu
- Gaitasuna garatzeko fasean: Puntu 1
- Gaitasun maila aurreratua: 1,5 puntu



Arabako kalkulu Gunea, A.B.  
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

○ Gaitasun maila bikaina: 2 puntu.

○ **Teknika arlokoa:** Honako hauek administratzeko eta konfiguratzeko ezagutzak: (geh. 10 puntu)

- Informazioaren segurtasunarekin lotutako legeria administrazio publikoetan: geh. 2 puntu
- Informazioaren segurtasunarekin lotutako nazioarteko estandarrak: geh. puntu 1
- Segurtasun kontraneurriak ohiko enpresa produktuetan: geh. 1,5 puntu
- Egiaptapen eta sinadura elektronikoko zerbitzuak ematea: geh. 2 puntu
- Informazioaren segurtasuneko tresnei buruzko oinarrizko ezagupenak antolakundeetan: geh. 2 puntu
- Arriskuen analisia, BIA, kontingentzia planak, negozioaren jarraitutasun planak: geh. 1,5 puntu

- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketako epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Lau hautagaietako batek gutxienez 7,5 puntu lortzen ez baditu gaitasun zatia balioestean elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoa balioestean elkarrizketan, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonak jarraituko dute.
- Lau hautagaietakoren batek ere ez baditu lortzen gutxienez 7,5 puntu gaitasun zatiaren balorazioan elkarrizketan, eta 2,5 puntu alderdi teknikoaren balorazioan elkarrizketan, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira laurak, eta Hautaketa Epaimahaia hurrengo lau hautagaiei deituko die.

#### **FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:**

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
EG/G	30	-	20	50

